

## Ezarian → Sektak Euskal Herrian

Berariaz manipulatu eta taldekideei kalte egiten dieten taldeak hartzen dira sektatzat. Erlijiosoak dira ezagunenak. Baina ez bakarrik. Euskal Herrian ere badaude batzuk, nahiz eta ez den horretaz asko hitz egiten.

# ‘Borondatezko’ esklabotza

Idoia Etxeberria Donostia

Zaletasunak partekatzeko duen taldea da jatorrian *sekt*a. Ez du zertan txarra izan. Baina hitz hori adiera negatiboa hartuz joan da pixkanaka: jendea manipulatzeko duen taldea hartzen da sektatzat; taldekideei euren kabuz pentsatzeko eta bizitzeko gaitasuna kentzen diena, burujakinaren bidez eta ia oharkabean. «Mugimendu totalitarioak» dira. Eta hemen ere badaude.

Marijo Berasartek (Donostia, 1960) «sektaren biktimitzat» du bere burua: «Haien engainuaren, manipulazioaren, jazarpenaren, eskrupulurik ezaren biktima. Zentzugabekeria baten biktima». Duela sei urte utzi zuen Eboluzio Ikerketen Institutua, baina arazoak ez dira amaitu: «Orain ere egoera injustu baten biktima gara». Talde horrek familia apurtzea lortu zuela dio, anai-arrebak etsaitzea.

«Diru goseak bultzatuta, gure aitak ahalegin handiarekin jaso zuen enpresa —eta gure gurasoek zahartzarorako zuten sustenguko bakarra— propio eta bidegabeki bereganatu zuten». Eta ez ez du erraza horri buelta ematea, «sektako burua abokatu delako». Aste honetan bertan epaiketa izan du taldekide baten kontra, «dirua ez bada, gutxienez duintasuna berreskuratzeko».

Yoga egitera joan zen bera, 1999an, «yoga integraleko eskola batera». Eta talde bateko kide bihurtu zen laster, anaia bezalaxe. 60 bat lagun zituen. «Eskatzeko orduan duten sotiltasuna hainbestekoa da, ematen baituzuk 'zure borondatez' jartzen dituzula lana, ahalegina, ondasunak...», kontatu du. «Egoa puzten dizute, egiten duzun dena ondo dago. Eta ondokoari beste hainbeste egiten diote, baina esanez besteak dena gaizki egiten duela; gezurrak».

Zintzo jokatzeko duten talde edo elkartek irekiago bihurtzen dituzte pertsonak. Euren buruaz seguruago. Sektak ez. «Guruei bizi-modu onaren trazaik gartzen zaizkien bitartean, akolitoek ez dute barne orekak eta bakeak ematen duen itxura osasuntsua, yoga egiten duen beste edozeinek bezala. Desoreka fisiko eta emozionala igartzen zaie, semi-esklabotzaren ondorioz». *Argizatzea* eta *askapena* lortzeko «bizitza materiala baztertzea» bultzatzen dituztela dio:



«Gurasoena barne. Eta bidean uzten dituzuna beraiek jasozten dute, 'kausarentzat'. Hau da, ondasunak handitzea da haien helburu 'espiritual' bakarra».

«Oso gogorra da. Nortasuna galdu egiten duzu, eta denbora behar da berreskuratzeko». Bere bikotekideak eta berak zortea izan zutela uste du, ez dutelako psikologo beharrik izan: «Barrukoek beharko dute. Denbora gutxi egin genuen. Konturatu egin ginen hura beste zerbait zela. Guk egiten genuela lan guztia. Ikusi genuen gure patrika egunetik egunera hutsagoa zegoela eta beraiena, alderantziz: beteagoa». Anaiak ez zuen taldea utzi, eta euren arteko harremanak hautsita daude orain. «Betiko».

Berasartek dioenez, talde horrek Mota del Marques herrian du egoitza (Valladolid, Espainia). «Baina Iruñen sortua denez, aldi-aldi Iruñen sartu zuten zabalitzen da. Taldea murriztu egin da, eta hamabi dira orain. Gurua eta zazpi akolito han bizi dira, eta beste hirurak sarri doaz; horien artean nire anaia». Bere testigantzarekin, egoera berean egon daitezkeenei lagundu nahi die.

Eboluzio Ikerketen Institutuko presidentek, Iñakik, ukatu egin du sektaren: «Argialetxe bat da, lanak itzuli, argitaratu eta zabaltzen dituen, eta ez du jendea bultzatzeko helbururik». Beraien aurka esaten direnak «oinarririk gabeko asmo txarren, difamazioen eta irainen» ondorio direla dio. «30 urte baino gehiago daramatza

## Zintzo jokatzeko duten taldeek irekiagoak egiten dituzte pertsonak; sektak ez

jardunean, eta inoiz ez da egon institutuaren kontrako erreklamazio administratiborik, ez salaketa zibil edo penalik, ezta beste-lako prozedurarik ere. Beraz, ez dago kontrako ebazpenik».

Hark azaldu duenez, institutua irabaz asmorik gabeko kultur elkartea da. «Ez da mugimendu bat, eta ez du jendea ideia baten inguruan bildu nahi, ez duelako erakutsi beharreko ideologia edo doktrinarik». Satpremek sortu zuen, 1977an, Parisen. «Asmo na-

gusia Satpremek Amarekin izan zituen elkarriketak zabaltzea da, eta baita haren eta Suyataren obra osoa ere, norberak hausnar dezan eta praktikan jarri haiek landutako eboluzio berria, eta jendea laborategi esperimentalak sortzera bultzatzeko, eboluzioaren aukera — beharra — proba dezaten».

Nor da Satprem, baina? Sri Aurobindo filosofo indiarren jarraitzaile bat; hark *yoga integrala* asmatu zuen 1910ean, «eboluzio esperimentalak egiteko gaitasuna dakarren metodo psikologikoa», [www.evolucion2.com](http://www.evolucion2.com) beraien webgunean irakur daitekeenez.

## Talde sektarioen zerrenda

Largantza sekten biktimen elkarrean arabera, asko dira «terapia alternatiboak» baliatzen diren sektak. Hori bai, sekten eremua oso zabala dela diote: «Jan daiteke talde erlijiosoa, kultur elkarre, lana eskaintzen duen zerbitzua, baita GKE bat ere...». Michael Langone psikologo espezialista 1988an zioen, «aldamenekoak esplotatzeko gaitasuna unibertsala da gizakiarengan. Edozein talde bihurtu daiteke sekta. Erakunde eta talde gehienek, bai-

na, autoerregulazio mekanismoak dituzte, hori gerta ez dadin».

Desberdina dena sektatzat hartzeko arriskua ere bada. Kideen eskubideak eta askatasuna kolokan jartzen dituztenak dira talde sektarioak, Largantzako kideen ustez. Zerrenda luzea dute egina Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko taldeekin ([www.largantza.org](http://www.largantza.org)). Nueva Acropolis, gnostikoak, Zientziologia... Gehienak hiriburuetan daude.

Yehovaren Lekukoak da zerrendako talderik jendetsuena. Zazpi milioi kide ditu munduan. AEBetan sortu zen, XIX. mendean, eta egoitza nagusia argialetxe gisa dute eratuta. Hainbat herrialdetan onartuta dago erlijio moduan. Largantzaren arabera, sekten ezaugarriak betetzen ditu: larriena odol transfusioei uko egitea iruditzen zaie, taldekideen osasuna arriskuan jartzea. «Beldurraren bidez manipulatzeko sortu zen odolaren kontu hori, 1945ean». Taldetik kanpokoekin harremana moztea eta kideen eskubideak ez errespetatzea ere egotzen diete: «Justizia paraleloa dute».

Azkenaldian zer esan handiena eman duena, berriz, 12 Tribuak komunitatea da. 2007 amaieran Frantziako Gobernuak *sektaren arriskuak* izendatu zuen. Donostia eta Iruñen etxe bana dute. Lehenengo kristauen modura bizi dira. «Umeez ez dute eskubiderik han. Tratu txarrak ematen dizkiete: makila txiki batekin eta handi batekin jotzen diete». Haurrei «heziketa fundamentalista» ematen dietela uste dute Largantzakoek. «Sinesgaitza da Gipuzkoako diputazioak, Arartekoak edo norbaitek ezer egin ez izana hori ikertzeko. Beldur dira, alarman piztuko delako gizartean. Gu prest gaude epaiketara joateko, eta epaileak esan dezala».

Adituen arabera, sektak eta jarrerak sektarioak bereiztea komeni da: talde bat sektatzat jotzeko jarrera sektarioak arau bihurtu behar dira, eta ez pertsona bakarren edo behin-behineko ekintzetara mugatu. Adibidez, asteburuko jarduerak batetik 1.500 euro kobratzea jarrera sektarioa izan daiteke; «hoteletan antolatzen dituzte ekintzak, eta gero desagertu egiten dira». Largantza elkartean jarrera sektarioen kontra ere egiten dute. Dozena erditik gora «kasu potolo» dituzte epaitegietan, denetarioak.

